Aretxabaletako Udala

## Lehiaketa bidez hiru peoi kontratatzeko deialdia

### 1.- Deialdiaren xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretuaren bidez Aretxabaletako Udalak hiru peoi kontratatzeko aukera du eta hauxe da deialdiaren xedea.

### 2.- Betekizunak

Udaleko obra eta zerbitzuetan peoien berberak.

### 3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

**a.** Lanik gabe egotea.

**b.** Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa izena emanda egotea.

**c.** Aretxabaletan erroldatuta egotea.

### 4.- Eskabideak

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak Aretxabaletako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, apirilaren 10eko eguerdiko hamabiak baino lehen.

**a)** Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

**b)** Eskabidearekin batera, ondoko agiriok aurkeztuko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa inskribatuta dagoela dioen agiria.
- Lehiaketan baloratzea nahi diren egoerei buruzko agiriak.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du.

Eskabideak, behar bezala beteta, Aretxabaletako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte.

### 5.- Epaimahaia

Lehendakaria:
Jose Mª Segovia Canto.

Mahaikideak:
Nahia Agirre Alegria
Mirari Ayastui Antxia
Martin Garai Lasa

Idazkaria:
Begoña Arenaza Madinabeitia

Epaimahaiak, bidezko baderitzo, aholkulari adituen laguntza eska dezake edozein probatan.

Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, eta Alkate-Lehendakariari horren berri emango diote, baldin eta 30/1992 Legeko (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazioko Prozedura

Erkidearen Legeko) 28. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, errefusagai izango dira, Lege bereko 29. artikuluaren arabera.

Epaimahaia osatzen duten kideek gutxienez erdiek izan beharko dute lanpostura sartzeko eskatzen den jakintza-arlo berari dagokion titulazioa, eta guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, Epaimahaiko idazkariak izan ezik, hark ez baitu bozkatzeko eskubiderik izango. Bestalde, epaimahaia ezingo da eratu eta aritu Lehendakaria eta Idazkaria eta epaimahaikide titular zein ordezkoen erdiak etorri ez badira.

**6.-** Lehiaketa fasea

Kontrataziorako erabiliko diren irizpideak eta puntuazioa honako hauek dira:

a) Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana.
b) Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana.
c) Langabezia laguntzarik edo prestaziorik ez jasotzea.
d) Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren jasotzailea izatea.
e) Eskainitako lanpostuari egokitzen zaizkion ezagupenak edo lan trebetasunak izatea.
f) Ardurapean mendeko pertsona gehiago edukitzea, eta familia errentako ratio txikiagoa izatea.
g) Emakumea izatea.
h) Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea.
i) Pertsona desgaitua izatea edo adimen osasuneko arazoak izatea.
j) Euskararen ezagutza.

Hautagaien eskaerak baloratzen hasi aurretik epaimahaiak zehaztuko du irizpide guztien balorazioa eta udalaren web orrian argitaratuko du.

Lehen perfila ez duenak nahi badu euskarazko azterketa egin ahal izango du apirilaren 11an, Arkupe Kultur etxean.

**7.-** Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Bi izangaiek edo gehiagok puntu kopuru bera izanez gero, hurrenkera Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluaren arabera egingo da.

Epaimahaiak Aretxabaletako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, aurkeztutakoen hurrenkerarekin.

**8.-** Kontratazioa

Organo eskudunak, zerrendako hiru lehenak kontratatuko ditu apirilaren hogeitamarretik aurrera eta bost hilabeterako.

**9.-** Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena dauka sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplika daitekeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

**10.-** Inpugnazioak

Deialdi hau, honen oinarriak eta hauetatik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako epe eta moduan.

Aretxabaletako Udala

**Convocatoria para la contratación de tres peones por concurso.**

## 1.- Objeto de la convocatoria

El Decreto Foral 41/2013 de 19 de noviembre de 2013 de la Diputación Foral de Gipuzkoa posibilita la contratación de tres peones por parte del Ayuntamiento de Aretxabaleta, siendo éste el objeto de la convocatoria.

## 2.- Funciones a desarrollar

Las mismas que tienen los peones de obras y servicios del Ayuntamiento.

## 3.- Requisitos de los aspirantes

Los aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para ser admitidos y, si procede, para tomar parte en el concurso-oposición:

**a)** Estar en paro.

**b)** Estar inscrito como desempleado en el Servicio Vasco de Empleo.

**c)** Estar empadronado en Aretxabaleta.

## 4.- Instancias

Las instancias para tomar parte en el concurso se dirigirán a la Alcaldesa-Presidenta de la Corporación de Aretxabaleta antes de las 12:00 horas del día 10 de abril.

**a)** Todos y cada uno de los requisitos enumerados en la base tercera deberán poseerse en el día de finalización del plazo de presentación de instancias.

**b)** Junto con la instancia, deberán presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I. o documento de identidad.
- Documento acreditativo de estar inscrito como parado en el Servicio Vasco de Empleo.
- Documentos de las situaciones que quieran ser valoradas en el concurso.

En los documentos que se presenten para la acreditación de los méritos sobre la formación complementaria deberá especificarse la duración del mismo.

Las instancias, debidamente cumplimentadas, deberán ser presentadas en las oficinas del Registro General del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

## 5.- Tribunal calificador

El Tribunal Calificador del concurso-oposición estará compuesto por:

Presidente:

- Jose Mª Segovia Canto

Vocales:

- Nahia Agirre Alegria
- Mirari Ayastui Antxia
- Martin  Garai Lasa

Secretario:

- Begoña Arenaza Madinabeitia

En las pruebas en que lo considere conveniente el Tribunal, podrá recabar la colaboración de asesores expertos en la materia de que se trate.
Los miembros del Tribunal están sujetos a los supuestos de abstención y recusación previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre. En caso de hallarse incurso/a en las circunstancias previstas en estos apartados se lo comunicarán al Alcalde-presidente.

Al menos la mitad de los componentes del Tribunal estarán en posesión del título correspondiente al mismo ámbito de conocimiento solicitado para acceder al puesto de trabajo, y el resto serán del mismo nivel académico o superior.

Todos los miembros del tribunal tendrán derecho a voz y voto, excepto el Secretario, que no tendrá derecho a emitir voto. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar si no se reúnen el Presidente y el Secretario y la mitad de los componentes titulares o suplentes.

**6.-** Fase de Concurso.

La puntuación y los criterios a utilizar en el concurso son los siguientes:

a) Haber agotado una prestación o subsidio de desempleo en los últimos doce meses anteriores a la fecha de selección.
b) Haber finalizado la última relación laboral en los dos últimos años respecto a la fecha de oferta de empleo.
c) No percibir prestaciones o subsidios de desempleo.
d) Ser perceptor o perceptora de la Renta de Garantía de Ingresos o Ayuda de Garantía de Ingresos.
e) Mayor adecuación de conocimientos o habilidades profesionales al puesto de trabajo ofertado.
f) Mayor número de personas dependientes a cargo, y menor ratio de renta familiar disponible.
g) Ser mujer.
h) Ser menor de treinta y cinco años o mayor de cuarenta y cinco.
i) Ser una persona con discapacidad o con problemas de salud mental.
j) Conocimiento de euskara.

Antes de proceder a la valoración de las solicitudes, el Tribunal especificará la valoración de los criterios y procederá a su publicación en la pagina web del Ayuntamiento.

Aquel que no posea el perfil uno podrá hacer el examen de euskara el 11 de abril en la Casa de Cultura Arkupe.

**7.-** Propuesta del Tribunal

La calificación final de cada aspirante se obtendrá mediante la suma de los puntos que ha obtenido y esa suma decidirá el orden para primar a los aspirantes.

En caso de empate en la puntuación, se decidirá de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero de igualdad de mujeres y hombres.

**8.-** Contratación

El Órgano competente contratará, a los tres primeros de la lista desde el treinta de abril y durante cinco meses.

**9.-** Incidencias

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del Concurso-oposición, en todo lo no previsto en las bases y en la legislación de aplicación supletoria.

Aretxabaletako Udala

## **10.-** Impugnaciones

La presente convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados, en los plazos y formas previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.